



**m a n t a n g o r r i**  
**ASTEKO ASMAKIZUNA**

Hogeita bi lagun laukizuzenean,  
baloia noiz sartuko aurkakoen atean.

**Zer den nork igarriko dio? ● ● ●**



# Denok dantzara!

MONIKA DEL VALLE / ARBACAKI PRESS


**ERREPORTAJEA**

 Dantza

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS



# Dantza bidezko hartu-emanak

Aiko dantza taldeak Kulunkaz tailerrak ematen ditu, haurrak, gurasoak eta aitona-amonak elkarrekin dantzan jartzeko.

Testua: **Maialen Unanue**

**B**esoak, hankak, gerria, burua... Gorputzeko atal guztiak mugitzen dira dantzaren bidez. Bestelako hizkuntza bat sortzen du gorputzak, eta hori indartu nahi du Aiko dantza taldeak Kulunkaz tailerraren bidez. Haurrentzako tailer gisa iragarri arren, batez ere, helduentzako tailerra da. «Sekretu bat kontatuko dizuet. Tailer hau ez da zuek dantzan ikasteko, helduek ikasteko baizik». Hala esan ohi die Patxi Laborda Aiko taldeko dantzari eta tailerra-



● ● Koreografia itxiak sortu baino, haur eta gurasoak dantzaren bidez komunikatzea dute asmo Aiko taldekoek. MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

ren gidarietako batek haurrei, ezertan hasi aurretik. Lehengo larunbatean egin zuten saioa Bilboko Bizkaia aretoan.

«Oso oso gustura» gelditu ziren Bilboko saioarekin Aikoko lagunak. Batetik, jende «dezente» bildu zelako, eta, bestetik, haurrak eta gurasoak ere oso kontent egon zirelako. Barre txikiarekin eman zuten saioa haurrek, gurasoek ez zekiten zerbait zekitelako, eta saioa amaitzean kontatu zieten Labordak kontatutako sekretutxoak. Aikok eskaintzen dituen saioak ez baitira ohiko dantza tailerrak: helburua ez da haurrek koreografia bat ikastea eta erreproduzitzea. «Haurrek ez dute ikasi behar dantza egiten, dantzatu egin behar dute, besterik gabe. Haurrekin joaten direnek, gurasoek edo bestelako senideek, ikasi behar dute nola egin harremana haurrekin, dantzaren bidez».

Haur eta helduen artean «koreografia hizkuntza» sortzen da horrela, eta hori lortu nahi dute: elkarrekin dantza eginez komunikatzea, harremanetan jartzea.

Izan ere, helduek egiten dutena imitatu egiten dute haurrek, eta, Aiko taldeko lagunen ustez, euren inguruko helduak dantzan ikustekak bultzatuko ditu haurrak dantzara. «Haurrek, imitatzeaz gain, adierazi eta inprobisatu ere egin behar dute; euren gorputza ezaigutu eta, musikaren bidez, hori guztia lotu», azaldu du Labordak. Koreografia itxiak geroa ikas ditzaketela dio, baina hori baino lehen «jolastu» egin behar dutela. Labordaren ustez, hain zuzen, koreografia itxiek frustrazioak sor diezazkiete haurrei: «Zenbait haurrek pentsatzen dute ez dutela beste batzuek bezain ondo egiten, eta, orduan, ez dute dantza egin nahi.

Haurrek, batzuetan, ezin dituzte egin haiantzako pentsatu ditugun koreografiak, eta helduok bideratzen ditugu frustrazio horretara».

Bi taldetan banatu zituzten dantzara animatutako haur eta gurasoak: 0-2 urte arteko haurrena eta 3-6 bitartekoena. Nagusiekin arituzen Laborda, eta gazteenekin Sabin Bikandi taldekidea. Bikandiren ustez, haurrak dantza eskoletara bidaliz gero, nerabazarora heltzean dantza egiteari utziko diote, «umeen kontua» dela ulertuko dutelako. «Nire gurasoen garaian, kontrakoa zen joera: zain egoten ziren hamalau urteak noiz beteko, galtza luzeak jantzi eta plazara dantzara joateko irrikaz». Bikandik gertu izan ditu kantua eta dantza familian; ohikoa dute haur jaioberrriak besotan hartu eta haien kantatzea, eta gorputza mugimenduan jartzea.

Eta horixe bera transmititu nahi dute tailerren bidez: «Horrela hasten gara dantzan, eta erritmoari zentzua hartzen». Dantza, esaten denaren aurka, ez baitu inork «be-rezko». Bikandiren ustez: landu beharreko zerbait da.

### Esparru berezietatik at

Bikandi eta Laborda bat datoz: ia esparru guztiak «umetu» egin direla diote. «Haurren guneak sortu ditugu, eta haiantzako gauza bereziak: erraldoi txikiak sortu ditugu, musika, joko, antzerki bereziak... Nolabait esateko, mundu paralelo bat sortu dugu haurrentzat». Aiko taldekoek, ordea, ez dute halako bereizketarik egin nahi: haurrek zein helduek elkarrekin banatzeko guneak sortu nahi dituzte. Eta elkargune horietako bat dantza izatea dute amets.